

## PATOLOGIA ETA OINARRIZKO ZAINKETAK

OCW UPV/EHU 2015

### PRAKTIKETAKO ARIKETAK

#### ERANTZUN HURRENGO GALDERAK

1. Ohean dagoen pertsona bati ohea egin behar diozu. Zerrendatu hurrenkera egokian ohea egiteko behar duzun materiala.
2. Pazientearen higiena eta ohea egiterakoan azal daitezkeen 5 konplikazio aipatu.
3. Alboko dekubitoan jarrita dagoen pertsona bati non jarriko zenizkioke burukiak presiozko ultzerak ekiditeko helburuarekin? Azaldu zure erantzuna.
4. Zeintzuk dira arnas bidea zabaltzeko erabili daitezkeen bi maniobrak?
5. Zertarako jartzen dira bendaiak?
6. Zer da ebiszerazio bat?

## EMAITZAK

**1. ERANTZUNA:** lastairaren azala, azpiko izara, zeharkako izara eta babesgarriak (pertsonaren osasun egoeraren arabera behar dira), burkoa eta burkoaren azala, goiko izara, burusia, ohazala, arropa zikina jasotzeko zakua (albo batean uzten da).

**2. ERANTZUNA:** Infekzioa (mikroorganismoak zabaltzeagatik); Larruazalaren narritadura (izaren zimurrengatik, xaboi egokiak ez erabiltzeagatik...); Traumatismoa (gorputz-jarrera egokia ez edukitzeagatik, ohetik erortzeagatik...); Prozedura ez jasatea (gorputz-jarrera aldaketarekin arnas zailtasuna agertzea...); Auto-estimua desoreka.

### **3. ERANTZUNA:**

- Buruki bat bizkarraren atzean, bizkarraren gainera ez erortzeko bere gorputza.
- Beste buruki bat, ipurdiaren atzean, ipurdia atzerantz ez joateko.
- Beste buruki bat bi belauen artean, bi belauen hezurak elkarren kontra ez jotzeko.
- Beste buruki bat, goiko besoa eta beheko besoaren artean. Goiko besoa airean ez egoteko.
- Azken burukia, behean geratzen den hankaren maleoloaren gainean, maleolo hau airean mantentzeko eta ohearen kontra presiorik ez izateko hemen.

**4. ERANTZUNA:** masail-hezur maniobra eta kopeta-kokots maniobra.

**5. ERANTZUNA:** mindutako aldearen mugimendua mugatzeko edota saihesteko, ferulak eta apositoak finkatzeko, gorputzeko edozein ataletan euskarri funtzioa betetzeko, presioa eragiteko, gorputzera trakzio aparatua finkatzen laguntzeko eta gorputz adarretik bihotzerako odol emaria baimentzeko eta laguntzeko.

**6. ERANTZUNA:** zauri kirurgiko baten orbainetik errai baten irteera ematea.